ASTEKARIA | 2014ko uztailaren 4an | XVII. urtea | USURBIL | 580. zenbakia | www.noaua.com

# noaua



Langabetuak kontratatzeko diru-laguntza deialdia

San Joan jaiak, iruditan

Bus Taxi zerbitzua, udako ordutegiarekin

## Baserrietara ere festa giroa eraman dute oilasko biltzaileek

USURBILGO LANBIDE ESKOLA

✆ 943 36 46 00

www.lhusurbil.com

**Erdi eta goi mailako zikloak A eta D Ereduak**

Administrazioa eta kudeaketa



Elektrizitate-elektronika



Fabrikazio mekanikoa



Ura eta energia
Produkzio zerbitzu eta manten.



**Honako honen bila bazabiltza:** Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

**MATRIKULA ZABALIK uztailaren 9tik 16ra**



Marije

Arropa denda

Beherapenak

%30 arte

Etxebeste kalea 3, Usurbil - 943361106

## Albistea iruditan

# Sua piztu zen Saroe jauregi ondoko etxean

Ekainaren 27an ostirala, eguerdiko 12:30ak aldera. Orduantxe piztu zen sua Kale Nagusian, Saroe jauregiaren ondoko etxean. Kalte materialak eragin zituen suak baina ez zuen inor harrapatu etxe barruan. Oraindik ez dago argi zerk eragin zuen ezbeharra. Suhiltzaileak iritsi bitartean, Ertzaintza, Udaltzaingoa eta udaleko brigadako langileak aritu ziren sua itzaltzen.

**Ondasun Kultural izendatua dago Saroe**

Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak liburuak dioenez, "eraikuntza bikaina da Saroe, barroko estilokoa. Planta karratua dauka eta kalitate handiko harearrizko harlanduz egina dago. Aurrealde nagusia artistikoki oso landua da. Armarri, balkoi eta leiho bikainak ditu. Gipuzkoan, bere estiloko eraikuntzen artean, luxuzkoenetakoa da Saroe jauregia. Soroa kapitainak eraiki zuen XVII. mendean, orube horretan lehenagotik zegoen eta erre egin zen etxe zaharra ordezkatzeko. Joaquín de Yrizar Bergarako arkitekto ospetsuak eraberritu zuen 1920 inguruan".



**Sutearen bideo labur bat igo genuen NOAUA! TB kanalera eta bisita ugari jaso ditu egunotan.**

## Laburrean

### Ostiral honetan eta jaien baitan, Gazte Eguna

Ernai, Gazte Asanbladak eta hainbat gazteek elkarlanean antolatu dute uztailaren 4an, ostiralez ospatuko den Gazte Eguna. Usurbilgo Gazte Mugimenduak ikasturtean zehar garaturiko elkarlanaren ispilu izango da Santixabeletako egun berezi hau. Poteoa, bazkaria, jokoak... Egun pasa oso bat antolatu dute gazteek.

### Festen aurrean, informazio eta prebentzio gunea

Drogen kontsumo arduratsua sustatzeko postu bat ipiniko dute ostiral honetan, Santixabel jaien baitan. Informazio eta prebentzio gunea Askatasuna plazatik Dema plaza alderako pasabidean aurkituko duzue. Ostiral honetan, uztailak 4, gauerdiko 00:00etatik goizeko 03:30ak arte. Antolatzaileak: Sasoia elkartea,Usurbilgo Udala.

### Uztailaren 7an izango da odol ematea

Bi hilean behin, hilabeteko lehen astelehenetan izaten da odola emateko aukera Usurbilen. Datorren saioa uztailean egokitzen da. Uztailaren 1etik 6ra ospatuko diren Santixabelen ostean, hilaren 7rako jarri du hitzordua Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak. Ohiko ordu eta lekuan; 18:00-20:30 artean, anbulatorioan.

noaua
Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Bea Alda, publizitatea@noaua.com.
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Aizpea Aizpurua.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.
**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Nerea Zinkunegi**

# Berri txarrak

Eskatu didazu, ez dakit nondik eta nola, idatzi hau zuri eskaintzea. Zur eta lur, zure eskaria gaiarekin nola lotu ez nekiela geratu naiz. Horrelako eskaririk egiteko nahikoa kasu egiten ez ote dizudan bururatu zait, pare bat buelta eman beharko dizkiot burutapenari.

Gaia nonbait, buruan dabilkit egun batzuetatik hona eta batbatean erraza baino errazagoa egin zait zurekin lotzea, askoan hitz egin dugu honen inguruan, ez zaizu berria egingo, txapas bat naiz.

Norbaitek pentsa dezake, larunbatean Lasarten izandako kontzertuaren inguruan zerbait aipatzera noala, eta ez, ez da hori asmoa, bertaratu ere ez nintzen egin. Kontua da berri txarrekin natorrela, besterik gabe.

Bihotza, iritsi da uda, bazen garaia!! Beroa, berotasunak, hego haizeek elikatutako zoro-boladak, festak han eta hemen, alkohola neurrian eta askotan neurriz kanpo, eta bestelako txutximierdak, burua galtzeraino, ebidentea dena ez noa ukatzera.

Adoleszentea nintzela, nerabea, aspaldiiiii, lau ahizpa etxean eta gurasoentzat kezka laukoiztua; kontuz gero zein ordutan eta nondik zatozten, ez abiatu bakarrik eta mutil ezagunik aldamenean bada harekin etorri...Urte assssko pasa dira eta "negua joan da taaaa..." eta berriak geroz eta txarragoak dira, jaiak non eraso sexistak han, "asin de klaro". Ez noa adibideak jartzera, ziur nago prentsa bitartez ezagutzen direnak motz geratzen direla errealitatearekin alderatuta.

Ez naiz guraso, baina herritar bezala, izeba bezala, lagun bezala, irakasle bezala, pertsona bezala, nire gurasoek bere alabekin zuten/duten? kezka ikaragarri, bai, ikara emateko moduan, biderkatu zait. Emakume izate hutsagatik kalteberak, bulnerableak gara, hori da panoramie, baina mutilenaaaaa, tela!!!

Autodefentsa ikastaroak egiten ari dira han eta hemen, bertan, beste gauza batzuen artean, zenbait datu eman dituzte gure gaztetxoen artean egindako hainbat inkestetatik ateratakoak. " Zergatik ez zenuke emakume bat bortxatuko?" da beste galdera batzuen artean mutil gaztetxoei egiten zaiena. " Izan ditzakedan lege ondorioengatik". Ez dut aipatuko zein den erantzun hau eman duen mutilen ehunekoa, oilo ipurdiak ateratzen zaizkit.

Uda honetan zereginik bai?

Gora Santixabelak!!! Eta ez ahaztu, matxismoari zapla, zapla, zapla!!!!

Maialen Unanue | Luis Aranalde | Imanol Ubeda | Idoia Torregarai | Aritz Gorriti | Joxe Piñas | **Nerea Zinkunegi**

**Ika-mika**

## Eskubaloiko neskak, Gora Santixabelak!

Zeinek esango zigun orain dela urtebete hemen egongo ginenik? Baina bai, ametsik politenean sinesten ez bagenuen ere, hemen gaude eta usurbildarrak izanda ohore bat da guretzako. Ia 20 urte eta gero emakumeen taldea berriz zilarrezko mailara igotzeagatik pozik gaude, zoriontsu, txoratzen!! Baina bidea ez da batere erraza izan: lesioak, jende gutxi... Baina batez ere azpimarratu nahi dugu emakume eta emakume kirolari izateagatik izan ditugun zailtasun eta oztopoak gainditzen jakin dugula, inongo momentuan irribarrea galdu gabe. Konturatu behar dugu "kasualitateak" ez direla kasualitate eta zerbaitegatik gertatzen direla. Emakume izate hutsagatik ez gaude zapalkuntzarik onartzeko prest, ez kirolean eta ez inon.

Traba hauei guztiei denon artean egin diegu aurre elkarlanean, esparru ezberdinetan, pista barruan eta kanpoan, laguntasunean. Eta konturatzerako honaino iritsi gara, egunerokotasuneko iñurri lanarekin ametsak betez. Argi geratu da, gai garela eraldaketa txikiekin helburu handiak lortzeko. Beraz, batera borrokatzen jarraitu behar dugu. Batera borrokatu behar dugu, gizarte parekide batera iritsi arte. Gora emakumeak eta gora emakume kirolariak!

Bukatu baino lehenago eskerrak eman nahi dizkiegu lagundu diguten guztiei, indarra eman diguten herritarrei, momentu on eta zailetan ondoan izan ditugun guztiei: familiakoei, lagunei, kide guztiei... Eta eskerrik asko, zuei ere bai neskak, urte ahaztezin honengatik. Nahita ere, oso-oso zaila izango delako urte hau berriz bizitzea, errepika ezina izango da. Plazer bat izan da talde honen partaide izatea eta eskerrik asko. Eta azkenik, gehienbat urte guztian zehar ezkutuan lanean aritu den gure entrenatzaile Gonzalori. Eskerrik asko bihotza.

Hau ez da bukaera, hasiera baizik. Eta Santixabelak hemen ditugu, hau dena ospatzeko modu hoberik ba al dago? Gozatu, errespetatu, ondo pasa pasatu gabe eta etxera goiz goizean goiz!

Gora Usurbil!

Gora Santixabelak!

**Usurbilgo eskubaloi senior nesken taldea**

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: uztailak 11. Idatzia ekartzeko azken eguna: uztailak 7 (eguerdiko 11:00ak).

## Bide-gorri sarea osatzeko diru-laguntza

Guztira 5.353,50 euroko laguntza eman dio Gipuzkoako Foru Aldundiak Usurbilgo Udalari, bide-gorri sareko hainbat ardatz osa ditzan. Udalerri hau eta herrialdeko beste 18 udalerri ere diruz lagundu ditu Diputazioak. Bizikletaren erabilera sustatu, bizikleta foru sarea zabaldu eta bultzatzeko, 250.000 euro banatu ditu guztira aipatu erakundeak. Laguntzok bidegorriak egitera bideratuko dituzte 19 udalek.

**5.353 euro Usurbilgoarentzat**

Usurbilgo kasuan, 5.353,50 eurorekin lagundu du Aldundiak, udalerri honetan bideratu nahi den 12.450 euroko proiektua.

Diru kopuruak banatzerakoan, "Aldundiak udalak garatuko duen ekintzaren portzentaje bat lagunduko du, ekintzak lortutako puntuen arabera, betiere %75eko eta 55.000euroko muga kontuan hartuta. Diru laguntzak lehentasun hurrenkerari jarraituz eman ditu Aldundiak, ezarritako guztizko zenbatekoa agortu arte".

# Langabetuak kontratatzeko diru-laguntza deialdia enpresentzat

Lanbidek finantzaturiko 122.500 euroko laguntza bideratuko dute eskualdeko udalek, bailarako langabeak eta lan eskatzaile moduan Lanbiden inskribatutakoak kontratatzen dituzten tokiko enpresetara. Enplegua sustatzea da diru-laguntza lerro honen helburu nagusia. Kontratazioak egiteko epea zabalik dago.



Usurbilgo enpresa batek 3 hilabeteko kontratua egiten badio langabetu bati, 3.000 euroko laguntza jaso dezake. Eta 6.000 euroko laguntza, 6 hilabeteko lan kontratuarengatik.

### LANBIDEREN BITARTEZ

Diru-laguntzok jaso nahi dituzten enpresek, Lasarte-Oriako Lanbideko bulegoetan lan eskaintza zehatza aurkeztu eta Lanbidek proposaturiko izen gaien artean egin beharko dute hautaketa. Lan kontratuek, beranduenez 2015eko maiatzaren 31 baino lehen bukatu beharko dute, sei hilabetetik gorako kontratuak izan ezik. Kasuotan halere, aipaturiko data baino lehen kontratuko sei hilabeteak amaituak beharko dute.

Eskabideak ere aipatu data baino lehen bideratu beharko dituzte interesdunek, Andoaingo Udalaren Sustapen ekonomiko, enplegu eta Gazteria Saileko erregistrora (La Salle etorbidea 6. Urigain etxea). Diru-laguntzak 2014ko ekitaldiko udal aurrekontuaren araberako kreditu erabilgarria amaitu arte emango dira, eskaera behar bezala betea, sarrera data eta orduaren lehentasun-hurrenkera jarraituz.

### LAGUNTZA, EUROTAN

Honakoak dira langabetuak kontratatzeagatik eskualdeko enpresek jaso ditzaketen diru-laguntzak:

- **3.000 euro**ko gehienezko laguntza, 3 hilabete iraungo duen lanaldi osoko kontratuko.
- **6.000 euro**ko gehieneko laguntza, 6 hilabete edo gehiago iraungo duen lanaldi osoko kontratuko.

Bi kasuotan, ez da kontratuaren kostuen %75 baino handiagoa izango.

- **9.000 euro**ko gehienezko laguntza, 6 hilabete edo gehiago iraungo duen lanaldi osoko kontratuko, honako hauek kontratatzen direnean: diru-sarrerak bermatzeko errentako jasotzaileak, lehen aldiz laneratzen diren 35 urtetik beherakoak edo kontratazioaren aurretiko 18 hilabeteetan gutxienez 12 hilabetez Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatuta eta lan eskatzaile moduan egon direnak. Azken zenbatekoa ez da %100 baino handiagoa izango.

Kontratu partzialek %50eko lanaldia izan behar dute eta kasu honetan adierazten den diru-laguntzaren erdia jasoko dute.

### INFORMAZIO GEHIAGO:

- Usurbilgo Udala, 943 371 951 (Josune Mujika teknikariarekin).
- E-posta: enplegu@usurbil.net
- Web orria: usurbil.net (Dirulaguntza deialdi honen oinarri eta eranskinak eskuragarri).

## Euskara ikasleentzako diru-laguntza deialdia, uztailaren 9ra arte

2013-14 ikasturtean zehar helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egin dituzten usurbildarrek, udal diru-laguntzak eskatzeko aukera dute, uztailaren 9ra arte. Eskabideak udal erregistroan aurkeztu beharko dira.

Horretarako, Usurbilen erroldatuak egon beharko dute, klaseen %80ko asistentzia izatea ere ezinbestekoa izango da eta gutxienezko aprobetxamendua ziurtatu beharra izango da. Ikaslearen lan egoera eta ikasketa mailak aintzakotzat hartuko ditu Udalak, diru-laguntzok ematerakoan. Matrikula kostuaren %60-80 artean itzuliko zaie, eskatutako baldintzak betetzen dituzten lanean diren ikasleei. %80-100 artean, ikasle langabetuei. Kasu guztietan halere, gehienez 500 euroko diru-laguntzak izango dira.

**Behar ekonomiko bereziak dituztenentzako deialdia martxan**

2014-15 ikasturtean euskara ikasi nahi izan eta behar ekonomiko bereziak dituzten ikasleei zuzendua dagoen diru-laguntza deialdi honek, euskaltegiko hurrengo ikasturteko matrikulazio kostua aurreratzea du helburu.

Euskara ikasi nahi izan eta behar ekonomiko bereziak dituzten ikasleei zuzendua dagoen. Deialdia martxan du jada Usurbilgo Udalak. Eskabideak aurkezteko bi asteko tartea izango dute interesdunek, uztailaren 15era arte. Euskara ikasleentzako diru-laguntza deialdi orokorreko oinarri berak aplikatuko dira kasu honetan.

# Herritarren elkartasuna, herrian falta diren Olatz, Patxi eta Xomorrori

Ekaineko azken ostiralean ere herritarrak kalera irten ziren, euskal preso eta iheslarien eta euren senideen eskubideak behingoz errespetatuak izan daitezen eskatzera. Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak ekainaren 27an Mikel Laboa plazan deituriko mobilizazioa berezia izan zen. Egun batzuk lehenago, bost urte bete baitziren, Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga atxilotu zituztenetik.

“Duela bost urteko San Juan bezperako gaua ez zen, ez, majikoa izan Usurbilen. Izan ere, guardia zibila andanak, Baltasar Garzon Audientzia Nazionaleko epailea bera buru zutela, Ugaldea industriaguneko beren etxetik atxilo eraman zituzten bi herritar: Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga, hain zuzen ere. Biek ala biek atxilo denboran tratu txarrak jasan izana salatu zuten. Ez alferrik, salaketak bere horretan geratu baiziren, hau da, berehala artxibatu zituzten ganorazko ikerketarik gabe. 2011ko urtarrilean 12 urteko espetxe zigorra jaso zuten. Bost urteotan Olatz eta Patxi Euskal Herritik urrun dauden espetxeetan izan dituzte eta, egun Foncalenteko (Alacant) kartzelan dauzkate preso, etxetik 780 km-ra. Denboraldi honetan apenas izan dute elkar ikusteko aukerarik. Soilik bitan elkartu zituzten (2011ko irailean ezkontzeko eta 2013ko apirilean). Epaileekin eta Espetxe Zuzendaritzarekin elkar ikusteko eskubidea exijitzeko hamaika ahalegin egin ostean, aurtengo neguan Olatz Foncalentera lekualdatu zuten, Patxi zegoen espetxera”, berri eman dute, Usurbilen Nahi Ditugu elkartetik.




**Aurreko ostiralean Mikel Laboa plazan elkarretaratzea egin zen. Larunbatean preso eta iheslarien eskubideen aldeko kantujira egingo da.**

## JAIETAN ERE, GOGOAN

Olatz, Patxi eta Xabier Aranburu “Xomorro” aginagarra, herrian falta diren hiru presoak oroitu dira azken ostiraleko mobilizazioan. Mahai bat ere jarri zuten ekainaren 27an, presoei elkartasun mezuak idazteko. Mobilizazioaren amaieran, Santixabel jaiotan, uztailaren 5erako, euskal preso eta iheslarien eskubideen alde deitu diren ekitaldietan parte hartzeko gonbita luzatu zitzaien usurbildarrei.

## KANTU-ZIKIRO JANA ETA EKITALDIA

“Udara iritsi zaigu, herriko jaiak ere bai… eta urtero bezala usurbildarrek bere lekutxoa egin diote preso eta iheslarien eskubideen aldeko Santixabeletako kantu-jirari”, antolatzaileen esanetan. Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko kantu-jira ospatuko da larunbat honetan, uztailaren 5ean, Kantu Taldekoen eskutik. 12:00etan abiatuko da Etxebeste kaletik, Patrinean hamaiketako legea egin ostean eta Urruñako Kuxkuxtu txaranga bidelagun dutela.

Kalez kale ibili ostean, kantu-zikiro bazkaritarako bilduko dira Askatasuna plazan. Gogoan izan, otordurako txartelak aurrez erosi behar dira. 22 eurotan salgai dituzue Bordatxon, Aitzagan eta Txiribogan, 12 eurotan ikasle eta langabetuentzat. “300 pertsonentzako lekua badago, baina laster batean amaitzen dira txartelak… beraz, gogotsu bazabiltza azkar ibili!”, luzatu dute gonbita Kantu Taldetik. Gogoan izan bestalde, preso eta iheslarien eskubideen aldeko ekitaldia ere antolatu dela larunbaterako txosna gunean. Hona hemen beraz, presoen eskubideen alde, uztailaren 5erako deituak dauden ekitaldiak:

- 12:00 Preso eta iheslarien eskubideen aldeko kantujira, Etxebeste kaletik abiatuta.
- 14:00 Kantu Zikiro-bazkaria Askatasuna plazan, Kuxkuxturekin.
- 20:00 Euskal presoen eskubideen aldeko ekitaldia Askatasuna plazan.

### Gogoratu txartelak erosteaz

Asteburuan kalean bazkaldu edo afaltzeko aukera bat baino gehiago. Adi, Santixabelen baitan hainbat otordu antolatu baitira. Hitzorduotarako txartelak aurrez erosi beharko dira. Ostiraleko Gazte Egunean bazkaria izango da txosnetan. Txartelak 10 eurotan izango dira salgai. 15 eurotan, ostiral gaueko 21:30etatik aurrera Askatasuna plazan bertan egingo den herri-afarikoak. Eta 22 eurotan (ikasle eta langabetuentzat 12 eurotan) larunbateko kantu-zikiro-bazkarikoak. Txartel guztiok, Aitzagan, Irratin eta Txiribogan eskuratu ahalko dira.

Otar-Goxo
Elikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

# Espainiako Koroak zilegitasunik ez udalbatzarentzat


Usurbilgo udalbatza, artxiboko irudi batean.

Juan Carlos Borboikoaren abdikazioaren aurrean eta EH Bilduk iragan asteko osoko bilkuran aurkezturiko mozioaren harira, honako adierazpena onartu zuen udalbatzak, gehiengo osoz: "Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioaren aurrean, Usurbilgo Udalak benetako haustura demokratiko baten aldeko aldarrikapena egiten du, Euskal Herritarrok gure herriaren etorkizuna erabakitzeko dugun eskubidea aldarrikatuz. Era berean, herri honek ez dio inolako zilegitasunik onartzen Espainiako Koroaren inongo ordezkariri.

Bizi dugun egoera politikoaren aurrean, gure herriaren aitortza eta erabakitzeko eskubidea eskuratzeko helburuarekin lan egiteko deialdia luzatu nahi diegu Euskal Herriko alderdi politiko, sindikatu, eragile eta herritarrei". EH Bilduk aurkezturiko mozioaren aurrean PSE-EE abstenitu zen. Hamaikabateko ordezkariek bozketan parte hartzeari uko egin zioten. EAJ-PNV ordezkaria ez zen egon osoko bilkuran.

**2013ko Kontu Orokorra**
Gehiengo osoz onartu zen ekainaren 24ko osoko ohiko bilkuran, EH Bilduren babesarekin. Hamaikabat eta PSE-EE abstenitu ziren. Alegazioen epean inolako erreklamaziorik izan ez zuen Kontu Orokorraren Espedientea Herri Kontuen Epaitegira bidaliko du Udalak, dagozkien azterketak egiteko.

**Udal lanpostuak**
Aurkeztuak zeuden berraztertze helegiteak onartu ez eta Balorazio Errebisio Mahaiaren proposamena bere osotasunean onartzea erabaki zuen udalbatzak aurreko asteko osoko bilkuran. Gehiengo osoz, Bilduren aldeko bozkekin. Aralar, Hamaikabat eta PSE-EE abstenitu ziren.

# Garbitaniaren kapital murrizketa, Oiartzungo Udala kanpo geratu eta gero

Oiartzungo Udalak Garbitania Zero Zabor S.M.tik kanpo geratuko da. Ondorioz, 666.000 eurotik 501.000 eurotara murriztuko da kapital soziala. Aldaketa gehiago ere eragingo ditu. Garbitaniako kide den beste udaletako batek, Hernanikoak 22 partizipazio salduko baitizkio Usurbilgoari, 22.000 eurotan. Erabakiok gehiengo osoz hartu zituen udalbatzak, aurreko asteko osoko bilkuran, EH Bildu koalizioaren babesarekin. Aurka agertu ziren Hamaikabat eta PSE-EE.

**501.000 euroko kapital soziala**
Modu honetan geratuko da, aurrerantzean hiru kide izango dituen 501.000 euroko kapital sozialdun Garbitania:

- Hernaniko Udala:
249.999 euroko kapital soziala (%49,90).
- Usurbilgo Udala:
130.009,50 euroko kapital soziala (%25,95).
- Astigarragako Udala:
120.991,50 euroko kapital soziala (%24,15).

## Kutxabank-en pribatizazioaren aurkako mozioa

Hala agertu da udalbatza gehiengo osoz, EH Bilduk joan den astean burutu zen osoko ohiko bilkuran aurkeztu zuen mozioaren aurrean. Pribatizazioa baztertzea eta Kutxabank-en "jarduera gure lurraldeko herritar zein finantza beharrizanetara" zuzentzea eskatzen du testuak. Hil ala bizikotzat jotzen da, bere kontrol publikoa mantentzea; jendartearen parte hartzea sustatzea ere galdegiten da; Gobernu Organoko kideak "entitate fundatzaileek, Gipuzkoako Kutxako langile eta ezarleek eta Gipuzkoako gainontzeko Udalek proposatuak eta hautatuak izan daitezela"; Gipuzkoako Kutxak Kutxabank-en duen %32ko parte hartzea mantentzea bermatzea; Gizarte Ekintza irmoki defendatzea eta murrizketarik ez onartzea; eta hau guztia, araudi batean jasotzea.

## Oinarrizko bihotz-biriken suspertzeari buruzko ikastaroa

Uztailaren 7an hasita bi egunez, 10:00-12:30 artean, DYAk Munalurra 26an duen egoitzan. Teoria eta praktika uztartuko dituzten saioon bidez, "bihotz-arnasketako geldialdia identifikatzen, oinarrizko bihotz-biriken suspertze (BBS) mugimenduak burutzen eta DEA (Kanpoko desfribiladore automatikoak) erabiltzen ikasten da". Ikastaroan parte hartu ahal izateko aldez aurreko ezagueraarik izatea ez da beharrezkoa izango. Matrikulazioa 90 euro, eskuliburua barne. Ikasle kopurua mugatua izango da. Aurrez eman beharko da ikastarorako izena, 943 46 46 22 telefono zenbakira deituta.


Uztailaren 7an hasiko da ikastaroa.





# Mikel Laboaren omeneko zikloa



Bakarlari gazteak arituko dira uztaileko ostegunetan, Mikel Laboa plazan.

Mikel Laboa handiari gorazarre egin nahi dio Usurbilgo Gaztetxeak uda honetan. Laboak utzitako uztari heldu nahi diote horretarako. Bakarlari gazteak gonbidatu dituzte Usurbila, nora eta, Laboaren omeneko plazan emanaldia eskaintzera. Uztailaren 10etik 31ra, ostegunero 21:00etatik aurrera, bakarlarien saioen ziklo berri bat Usurbilen:

**Uztailak 10, osteguna**
21:00 Meren.

**Uztailak 17, osteguna**
21:00 Ri Ta Carrere.

**Uztailak 24, osteguna**
21:00 Isuo Sassia.

**Uztailak 31, osteguna**
21:00 Beñat Antxustegi.

Tokia: Mikel Laboa plaza.
Antolatzailea: Usurbilgo Gaztetxea.

## Gaztelekuko Udabenturaren hurrengo hitzorduak

**Uztailak 3, osteguna**
16:30 Ping Pong txapelketa (Denak).

**Uztailak 7, astelehena**
16:30 Pelikula (DBH1).

**Uztailak 10, osteguna**
13:30etatik 19:25era Donostiako irlara (DBH1).

**Uztailak 14, astelehena**
14:50etik 19:10era Voleibol Zarauzko hondartzan (DBH3).

**Uztailak 17, osteguna**
15:00etatik 19:15etara Hernaniko igerilekura (DBH2).

**Uztailak 21, astelehena**
12:50etik 19:05era Donostiako irlara (DBH2).

**Uztailak 24, osteguna**
12:50etik 19:05era Zarauzko hondartzara (DBH1).

Antolatzailea: Gaztelekua.

## Udako Eskolak, denontzat

Nork bere ezagutzak besteekin partekatzea, horixe sustatu nahi du Usurbilgo gazte talde batek. Helburua betetzeko, udako eskolak antolatu dituzte. Osasuna, historia, ekonomia edota hezkuntza gaiak jorratuko dituzte. Hitzordu guztiak, Usurbilgo Gaztetxean arratsaldeko 17:00etan hasita, egunotan:

**Uztailak 7, astelehena**
17:00 "Hartutako Kalte Neurologikoa". Hizlariak: Saioa Fernandez eta DYAko boluntarioak.

**Uztailak 9, asteazkena**
17:00 "Historiaren irakurketa". Hizlaria: Ugaitz Agirre. Historian zehar historia bera nola irakurri eta tratatu den azaltzen arituko da.

**Uztailak 11, ostirala**
17:00 Mahai-ingurua: "Hezkuntzaren beharra gaur egun".

**Uztailak 14, astelehena**
17:00 "Ekonomia rock and rolling". Hizlaria: Luken Arkarazo. Azken 50 urteotako ekonomiaren bilakaera musikarekin alderatuz.

**Uztailak 16, asteazkena**
17:00 "Italiako ultraeskuinaren gorakada". Hizlaria: Xuban Zubiria.

**Uztailak 18, ostirala**
17:00 Mahai-ingurua: "Udako Eskolen balorazioa".

Oharra: saioak libreak eta irekiak izango dira, nahi duen oro gerturatu liteke.
Antolatzaileak: Usurbilgo gazte talde bat.



Gaztetxean izango dira eskolak.












# Jai giro ederra Kalezarren

**Gorritiren showak, soka-dantzak eta sardina zein sagardo dastatzeak Kalezarko plaza bete zuten azken aldiz, joan den ekainaren 24ko San Joan Egunez, auzoko festen agurrean. Amaitu dira, aurten bost egunez jarraian ospatu diren jaiak (argazkiak: NOAUA, Josune Estella).**










# Oilasko biltzaileak, Kaxkotik haratago jai giroa zabaltzen

Usurbilgo gazte belaunaldi berria duzue ondoko irudian. Gazte koadrila ederra batu zen asteartean, Santixabelen hasieran, oilasko biltzera irteteko. Kaxkoa, Kalezar edota Aginagarekin batu zuten trikitilarien ezinbesteko laguntzaz, dantzan, kalejiran, lagun arte giro ederrean. Ateri goiz partean, euripean eguerdian. Baina jai giroa eta gogoa nagusi, guztiaren gainetik, Kalezarreko Buena Vistatik Maider Makazagak bidali zigun argazkian eta oharrean aipatzen zuen moduan. "Beste behin ere, herriko gazte kuadrila eder bat tradizioari jarraipena emanez baserrietara festa giroa eramaten dabil. Buena Vistara iritsi direnaren probak behintzat baditugu! Ea buelta bikaina egiten duten eta datorren urterako egin dugun tratuaz oroitzen diren!", halaxe zioen NOAUA!ra helarazitako oharrean.



Goiko argazkian: oilasko biltzaileak Buena Vistan. Goizean goiz hantxe ziren. Azpiko argazkia Aginagan egina da. Eguneko eta jaietako irudi gehiago, datorren astekarian.

**Txikiak ere oilasko biltzen**

Gazteak etxez etxeko erronda egiten ari ziren artean, abiatu berri zen Udajolas. Aisialdi ekimeneko begirale eta haurrek ere bat egin zuten, oilasko biltzaileen jaiarekin. Euren erronda partikularra egin zuten, jolas eta oilasko eta guzti, Kaxkoan barrena.








# Terrazarik ez da izango aurtengo festetan

Iaz, terraza moduko bat zabaldu genuen Santixabeletan. 2013a urte zaila izan zen NOAUA! Kultur Elkartearentzat, bereziki arlo ekonomikoan. Ekimen ezberdin bat martxan jartzeko beharra ikusi genuen eta jaietan terraza bat zabaltzea erabaki genuen. Aurtengo festetan ere, hala egingo genuela aurreratu genuen, ekaina hasieran plazaratu genuen NOAUA! aldizkariaren bitartez. Baina hainbat arrazoi tarteko, terrazaren egitasmoa bertan behera uztea erabaki du NOAUA!ko Zuzendaritza Batzordeak.



Iazko terraza. Aurten errepikatuko ez den irudia.

2013. urtean genituen antzeko premiak ditugu aurten ere. Gauzak ez dira hainbeste aldatu, zoritxarrez. Baina terrazari berriro heltzeko garaia iritsi denean, faktore ezberdinak aztertu ditugu eta egitasmoa bertan behera uztea deliberatu dugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu azken asteotan euren prestutasuna agertu diguten sukaldariei eta laguntzaileei. Hala nola, Usurbilgo Udalari, NOAUA!ko bazkideei zein Usurbilgo herritarrei, orain arte eskaini diguten babesa beharko dugulako aurrerantzean ere.

Herriko jaiez gozatzeko garaia da. Irailean egitasmo berriei heltzeko asmo sendoa dugu eta denon laguntza garrantzitsua izango da.

**NOAUA!ko Zuzendaritza Batzordea**

# Santixabel jaietako egitarau eguneratua

### Uztailak 3, osteguna

10:00 Umeen Eguneko dantzarekin ginkanaren hasiera.
10:30-13:00 Ludoteka: Puzgarriak Dema plazan. Eguraldi txarra balitz, Oiardo Kiroldegian.
11:00-13:00 Jokoak frontoian.
Ondoren, erraldoi eta buruhandiak trikitilariekin.
14:00 Umeen lagunarteko bazkaria frontoian (norberak ekarrita).
15:30-17:30 Pottokak Artzabalen.
15:30-17:30 Ludoteka: Puzgarriak Dema plazan.
17:00 Frontoian, Irrien Lagunekin "Arrantzara dantzan".
18:00 Txokolate jana frontoian.
Ondoren, buruhandi eta erraldoiak trikitilariekin.
19:00 Paella txapelketa eta dastaketa afaria txosnetan.
22:00 Bertso musikatuen emanaldia Askatasuna plazan. Beñat Gaztelumendi, Arkaitz Oiartzabal "Xamoa", Jokin Labaien eta Egoitz Zelaia.
-Musikariak: Eneko Sierra (Sasofoia), Ixak Arruti (Kitarra), Antton Aranburu (Kitarra) eta Gari Otamendi (Bibolina).

### Uztailak 4, ostirala

10:30 Haur eta gaztetxoentzako Pintura Lehiaketa (materiala bertan banatuko da).
11:00 Toka Txapelketa Artzabalgo egoitzan.
12:30 Gazte Eguneko trikipoteoa txosnetan.
13:00 Pintura lehiaketako saribanaketa.
14:00 Gazte bazkaria.
16:30 Santixabel Igel Jokoa Artzabalgo egoitzan.
17:30 Gazte jokoak, elektrotxarangaz lagundurik.
18:00 Buruhandi eta erraldoiak trikitilariekin.
21:30 Herri-afaria txosnetan.
23:00 Kontzertuak frontoian: Arto Bixar, Arcada Social, Kashbad eta McOnak.
00:00-03:30 Drogen kontsumo arduratsua sustatzeko postua, Askatasuna plazatik Dema plazarako pasabidean.
03:00 Musika txosnetan, Zuterpoint-en eskutik.

### Uztailak 5, larunbata

11:00 Haurrentzako BTT bizikleta irteera, Mikel Laboa plazatik.
12:00 Preso eta iheslarien eskubideen aldeko kantujira, Kuxkuxtu txarangak lagunduta.
14:00 Kantu Zikiro-jana Askatasuna plazan, Kuxkuxturekin.
16:00 IX. Kayak jaitsiera Alirin (Zubieta).
18:30 Erraldoi eta buruhandiak Burrunbazale Txarangarekin.
18:30 Herri kirolak: aizkolariak. 2. mailako txapelketako finala.
20:00 Euskal presoen eskubideen aldeko ekitaldia Askatasuna plazan.
22:30 Bertso-saioa frontoian: Andoni Egaña, Amets Arzallus, Miren Amuriza, Etxahun Lekue, Asier Azpiroz eta Unai Gaztelumendi. Gai-jartzailea: Unai Elizasu. Amaieran, Santixabeletako XXXVIII. Bertsopaper Lehiaketako sari banaketa.
01:00 Boston Jai taldearekin dantzaldia frontoian.
01:00 Bertsio gaua Askatasuna plazan.

### Uztailak 6, igandea

09:00 Esnadeia txistulariekin.
11:00 Ur bataioa Oiardo Kiroldegian.
11:30 Umeentzat jokoak Askatasuna plazan.
11:30 Zanpantzarrak.
12:00 Buruhandi eta erraldoiak dultzaineroekin.
12:30 Suziri umoretsua Munalurrako plazan, Mikel Elexpe eta bere taldearen eskutik.
13:00 Herriko dantzarien emanaldia.
14:00 Jubilatuen bazkaria Atxega Jauregian.
16:30-18:00 Santixabel Bola Txapelketa irekia.
18:30 Buruhandi eta erraldoiak dultzaineroekin.
18:30 Herri-kirolak:
-Harri-jasotzaileak: Gipuzkoako harri txikien txapelketako finala.
-Idi dema: Telleria eta Olasagasti.
19:30 Patata-tortilla lehiaketa.
20:00 Kontzertu akustikoa txosnetan: Pelax eta Cawboy Orchestra.
23:00 Maskota erretzea eta traka Artzabalgo frontoian.
23:30 Anai Arrebak taldekoen kontzertua Askatasuna plazan.

Oharrak:
-Zirriborro tailerrekoen eta Labore taldekoen lanak ikusgai, Sutegiko aretoan.
-Zapi koadrodun urdina janzteko deia.

# Eskertza Ziortzatik, kanpaldia muntatzen lagundu zutenei



*"Denok daramagu taldea aurrera, ezinezkoa litzateke denon arteko elkarlanik gabe"*

**Santixabelak amaitu eta gero abiatuko da lehen taldea Peñaloscintosera. Txanda guztien ondoren jasoko da kanpaldia, abuztuaren 10ean.**

Gurasoen, Ziortzako Azpiegitura Taldeko bolondresen edota Tolosako Atsedena Taldeko kideen artean, guztira 60 bat lagunek elkarlanean muntatu zuten asteburuan Peñaloscintosen (Errioxa), Ziortzako udako kanpaldi gunea. "Bezperatik joandako guraso eta Ziortzako Azpiegitura Taldeko bolondres talde bat geneukan zain, asteburuan zehar egin zitzazketen gainontzeko gauzak utzi, eta bertara, lanera joan zirenak. Iritsi, indarrak hartu eta ekin genion lanari Usurbilgo eta Tolosako Atsedena Taldeko 60 bat lagunek, denak fin baino finago. Aurten gainera, berrikuntza bat izan du muntaiak; sukaldeko teilatua berritu baitugu, eta jardun ginen horretan ere jo eta su, giro ezin hobe batean", Ziortzatik berri eman dutenez.

Eskerrak helarazi nahi dizkiete lagundu zuten guztiei. "Pozik gaude gu, oso, Ziortza Gazte Elkartea guztion artean osatzen baitugu; bai gazteek, bai gurasoek, bai ZATek eta bai begiraleok. Denon artean daramagu taldea aurrera, ezinezkoa litzateke denon arteko elkarlanik gabe. Horregatik, beste behin, eskerrak ematea dagokigu guri. Mila mila esker, benetan zuetako bakoitzari ematen diguzuen laguntzagatik. Ez ahaztu, denok gara Ziortza Gazte Elkartea, mila esker!", gaineratu dute gazte elkartetik.

## UZTAILAREN 8AN, LEHEN GAZTEAK

Santixabelak amaitu ostean, uztailaren 8an helduko da lehen gazte taldea Peñaloscintosera (Errioxa). Kanpaldiaz gozatzen lehenak, DBHko gazteak izango dira.

Adi, uztailaren 8an, goizeko 8:30ean irtengo da udaletxe ondoko autobus geltokitik Errioxa alderako autobusa. Antolatzaileek puntualak izatea eskatzen dute.

Uztailaren 22an, LH 5 eta 6 mailakoek hartuko diete lekukoa, uztailaren 31ra arte. Hauen kasuan, autobusa hilaren 22an, eguerdiko 12:00etan abiatuko da leku beretik.

Kanpaldia amaituta, abuztuaren 10ean egingo dira desmuntaketa lanak. Bertara gauza jasotzera animatzen denak, idatzi dezala email bat honako helbidera: ziortzage@gmail.com







Gure Esku Dago

# Hurrengo urratsa, gure esku

USURBILGO LAN TALDEA
2014-06-30

Handia. Itzela. Latza. Izugarria. Bikaina. Eta, batez ere, hunkigarria. Ezin zuen guztiak %100ean ondo atera, eta ez zen atera, baina ezin zuen bestela izan: dimentsio handiko ekitaldia izan zen ekainaren 8ko giza katea, bere sinpletasunean oso konplexua. Baina eguna bera ikaragarria izateaz gain, ordura arteko prozesu guztia ere oso garrantzitsua izan da. Garrantzitsuena, ziurrenik: Euskal Herriko 170 herritan sortu dira erabakitzeko eskubidearen aldeko batzordeak. Txikiagoak, handiagoak, baina 170 herritan lortu da era askotako jendea elkartu eta elkarrekin lanean jartzea. Euren artean ezezagunak askotan, baita ezinikusiren bat ere. Gure Esku Dago dinamikak ilusioa pizteaz gain, herritarren arteko lankidetza, konfiantza eta konplizitatea lortu ditu: hori da dinamikaren lorpenik handiena. Eta, hori gutxi balitz, 170 herri batzorde horiek aurrera begira gaude dagoeneko.

Giza kateak utzitako zapore gozoa oraindik ahoan genuela elkartu ginen herri batzordeetako ordezkariak ekainaren 21ean, Arrasaten. Berrehun bat lagun elkartu ginen: egunaren balantzea egin genuen batetik, eta aurrera begira dinamikak eman beharreko pausuez jardun genuen, bestetik.



Herritarren iritzia jaso nahi dute. Galdetegi bat banatuko dute postontzietan. Bete, eta Laurok edota Lizardiko Gure Esku Dago kutxetan sartu.

Zer egin nahi dugu? Nola egin nahi dugu? Horra Arrasaten planteatu zizkiguten bi galdera nagusiak. Han bertan ez genuen ezer erabaki: zenbait galdera jarri ziren mahai gainean, eta orain herrietako batzordeek erantzun beharko dituzte irailaren hasierarako. Zentzu horretan, Usurbilgo Gure Esku Dago lantaldeak herritarren iritzia jakin nahi du. Horregatik, datorren astean galdetegi labur bat utziko dugu zuen postontzietan: galderei erantzun, eta hilaren 31 aurretik Lizardin eta Lauroken jarritako kutxan sartzeko eskatu nahi dizuegu. Zenbat eta ekarpen gehiago, hobe.

Erabaki bakarra hartu genuen Arrasaten, eta horren berri eman nahi dugu lerroon bidez. Dinamika hasi zenean, ordaindutako bost euroen truke aterki bat, motxila bat... emango zirela esan zen, baina gero bertan behera geratu zen kontua. Horren ordez, oroigarri bat egitea erabaki zen, parte hartzaile bakoitzari giza katearen irudiak jasoko zituen CD bana emateko. Arrasaten esan zigutenez, ordea, 150.000 euroko kostua lukete oroigarri horiek, eta diru kopuru handia dela kontuan izanda, baloratzeko esan ziguten: diru hori oroigarriak egiteko erabili nahi genuen, edo etorkizunean beste ekitaldiren bat antolatzeko gordetzea nahiago genuen galdetu ziguten. Ia boto guztiak bigarrenaren aldekoak izan ziren.

Etxeko lanak lehenago egin beharko baditugu ere, irailaren 13an hasiko du Gure Esku Dagok ikasturtea ofizialki. Datozen hilabeteak oso garrantzitsuak izango dira nazioartean, fokuak Katalunian eta Eskozian izango direlarik. Bi egun lehenago botako dute kataluniarrek hasierako suziria Diadaren bidez; 18an, berriz, eskoziarrek beren etorkizuna erabakiko dute. Tarte horretan, irailaren 13an, euskaldunok ere erabaki egin nahi dugula aldarrikatuko dugu – aurrerago zehaztuko dugu nola –.

Gure Esku Dago herritarren esku dago. Zer izango den, zer egingo den, nola egingo den, zein pausu eman nahi ditugun... Herritarrok erabakiko dugu. Giza katearekin ez zen ezer bukatu: huraxe izan zen hasiera. Egun horretan argi geratu zen metatutako indar hori guztia ezin dugula itzaltzen utzi. Usurbilgo Gure Esku Dagoko kideok ilusioz jarraituko dugu lanean, eta usurbildarrak gurekin parte hartzera gonbidatu nahi ditugu.

Edozertarako, usurbilgureeskudago@gmail.com helbidera idatz dezakezue.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 USURBIL

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 24 01 76 eta
649 435 470
errazkinsl@euskalnet.net
Oztaran auzoa 33, URNIETA

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

# Bus Taxi zerbitzua udako ordutegiarekin

Auzoetan eta landa ingurunean sakabanaturik bizi diren biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko sortu zen Bus-Taxi zerbitzua. Elkarlanean ari dira Usurbilgo Udala eta Behemendi Landa Garapen Elkartea. Helburua: herritarren mugikortasuna erraztea. Auzoetara eta baserrietara garraio publikorik ez iristeak eta, kasu batzuetan, gidabaimenik ez izateak, isolamendu arazoak sortzen dituela ikusi ondoren, horri irtenbide bat eman nahi izan zitzaion. Hala, auzoetan mugitzeko arazoak dituztenei eta landa eremuan bizi diren adineko pertsonei aukera eman nahi zaie "ez ohiko" eginkizunak beren kabuz egiteko.

Adinagatik edo mugikortasun arazoak tartean, geltokira gerturatu ezin dutenentzat furgoneta hau etxeraino hurbiltzen da, indarrean dauden zerbitzuen ordutegien barruan. Horretarako, zerbitzua telefonoz eskatu behar da: 630643596.



**Usurbilgo Udala eta Behemendi dira Bus Taxi zerbitzuaren sustatzaileak.**

BUS TAXI ZERBITZUA

***"Abuztuan zerbitzua eten egingo da eta irailaren 1ean ohiko ordutegian jarraituko du"***

**Uztailean, soilik ordu jakin batzuetan**

Udako ordutegia jarriko da martxan (hau irakurtzerako akaso jada indarrean da udako ordutegia). Aurreko urteen moduan, uztailean goizez soilik funtzionatuko du;

- 07:30etik 08:30era.
- 10:30etik 11:30era
- 13:00etik 14:00etara.
- Arratsaldeetan, 15:30-16:30 eta 19:00-20:00 artean ez da zerbitzurik izango.
- Ez da zerbitzurik izango jai egunetan: Santixabel egunean, uztailaren 25ean eta 31n.

**Irailaren 1ean betiko martxan**

Abuztuan zerbitzua eten egingo da. Irailaren 1ean, astelehena, ohiko ordutegian jarraituko du Bus Taxi zerbitzuak.

## Udako ordutegiak

**Oiardo Kiroldegia, uztaila eta abuztuan:**
Lan egunetan: 7:00-13:00 eta 17:00-21:00.
Larunbatetan: 9:00-13:00.
Igande eta jai egunetan: 9:00-13:00.
Itxiera egunak: uztailak 2, 3 eta abuztuak 1-24 artean.

**Garbigunea, uztailak 15–irailak 15:**
-Astelehenetik ostiralera: 10:15-14:00. Arratsaldetan itxita.
-Larunbatetan: 9:00-13:30.

**Sutegi udal liburutegia, irailaren 7ra arte:**
Astelehenetik ostiralera: 9:30-14:00.
Larunbatetan: itxita.

**KzGunea, uztailean:**
Uztailean: 9:00-13:00.
Abuztuan: itxita.

**Bus Taxi zerbitzua, uztailean:**
07:30etik 08:30era.
10:30etik 11:30era
13:00etik 14:00etara.
Arratsaldeetan, 15:30-16:30 eta 19:00-20:00 artean ez da zerbitzurik izango.
Abuztuan: itxita.

# Igandetik aurrera, hondakinen sortzez besteko ordainketa sistema berria martxan

Jaietan murgilduak egongo garen arren, ez ahaztu. Igande honetan bertan jarriko da martxan, hondakinen sortzez besteko ordainketa sistema berria. Alegia, aurrerantzean, igandero, erreusa Udalak asteotan banatu duen ontzian atera beharko duzuela, goizeko 6:30etatik 9:00etarako tarte horretan. Ontzia etxe atarira zenbatero ateratzen duzuen, horren arabera kalkulatuko du Udalak aurrerantzean, hondakinengatik ordaindu beharko den tasaren zati bat. Tarifa finkoari dagokion tasa ordaindu beharko da, eta horri, ontzia ateratzen duzuen bakoitzero 0,68 euro.



**Igandetan atera behar da ontzi grisa, erreusarena.**

**Ontzia jaso ez duenarentzat**

Ontzi grisa banatzeko postua jarri du Usurbilgo Udalak, aurreko asteotan. Halere, oraindik kuboa eskuratu ez duzuenok, Atez Ateko bulegora gerturatu, zuen helbidea eman eta doan jaso ahalko duzue. Astelehenetik ostiralera, goizez, 10:00etatik 12:00etara. Edozein argibide edo informazio gehiago, Puntapax kalea 10eko bulegoan bertan, 900 776 776 telefono zenbakian edo atezate@usurbil.net helbidera idatzita.

# Onenak, palan




**Astelehenean jokatu ziren pala txapelketako finalak. Irudian txapeldunak eta txapeldunordeak.**

Saritu talde handi batekin amaitu zen jaien atarian, azken asteotan jokatu den Santixabeletako Pala Txapelketa. Zorionak denei!

**Emakumezkoen pala txapelketa**
Txapeldunak: Miren eta Mirian.
Txapeldun ordeak: Alaitz eta Leire.

**Gizonezkoen pala txapelketa**
Txapeldunak: Enrike eta Jon.
Txapeldun ordeak: Xabier eta Haritz.

## Pilota Txapelketako finalak

Ohi bezala, jaietako egun handian jokatuko dira Usurbilgo Pilota Txapelketako finalak. Uztailaren 2an asteazkena, arratsaldeko 18:00etan Usurbilgo frontoian. Bi finaletan, usurbildarrak izango dira:

Galarraga (Albiztur) – Iker Zinkunegi (Usurbil)
Bengoetxea (Usurbil) – Altuna (Hernani)

Yoldi (Iruñea)-Landiribar (Iruñea)
Onsalo (Areso)-Arruti (Usurbil)

# Pirinioetara, Andatzakoekin batera

Uztailaren 12-13an Gavarnie aldera joango dira Andatzakoak, "Pirinioetako leku liluragarrienetako bat bisitatzera". 12an Pont D'Arrailletik Grange de Holle aterperaino joango dira, Lac des Gloriettes, Estaubeko bailara, Hourquette D'Alans (2.436 m) eta Gavarnieko herria zeharkatuz. "Uztailaren 13an autobusak Bujarueloraino (Col de Tentes) eramango gaitu eta Taillón mendira (3.144 mt) igoko gara, Sarradets eta Rolanden bretxatik pasa ondoren".

**Izen ematea, uztailaren 3a baino lehen**

- Irteera Oiardo udal kiroldegitik, goizeko 6:00etan. Garraioa, autobusez.
- Non eman izena: Andatza Mendizaleen Kirol Taldeko 2095 5069 07 1068489805 kontu zenbakian (Kutxabank), uztailaren 3a baino lehen.
- Plaza mugatuak. Lehentasuna Andatza MKT-koek dute.
- Ostatua Gavarnieko Grange de Holle aterpean izango da (Pentsio erdia).

**Kontuan hartzekoa, izena eman aurretik**
Izena ematerakoan izena eta bi abizen eman behar dira eta ordaindu behar da:

- Andatzako bazkideek, Pirinioetako gehigarria dutenak 35€
- Andatzako bazkideek, Pirinioetako gehigarria EZ dutenak 42€
- Gainontzekoek, (federatuak), Pirinioetako gehigarria dutenak 49€
- Gainontzekoek, Pirinioetako gehigarria EZ dutenak 56€

**Oharrak**

- Uztailaren 10ean, arratsaldeko 19:00etan bilera egingo da Sutegiko aretoan.
- Andatza MKT-ak ibilbidea aldatu edo bertan behera utzi dezake.
- Info gehiago: andatza.com

## Jaietan ere, izerditan blai

Hona hemen, festetako asteburuko kirol agenda:

**Uztailak 5 larunbata**
**11:00 Haurrentzako BTT bizikleta irteera**, Mikel Laboa plazatik.
**16:00 IX. Kayak jaitsiera Alirin** (Zubieta).

**Uztailak 6 igandea**
**16:30–18:00 Santixabel Bola Txapelketa irekia.**

## Larunbatean aizkolariak eta igandean harri jasotzaileak eta idi-dema

Jaietan ohikoak izan ohi dira herri kirol saioak. Aurten, 2. Mailako Aizkolari Txapelketa egongo da jokoan. Jon Irazu (Zizurkil), Aratz Mugertza (Mutriku), Ugaitz Mugertza (Mutriku), Jexuxmari Mujika (Ibarra), Eneko Otaño (Beizama), Luis Mari Txapartegi (Zestoa). Larunbatean, 18:30etik aurrera.

**Igandean, Harri Txikien Lehia**
18:30ean hasiko dira eta harri txikiekin lehiatu beharko dute. Aimar Galarraga, Aimar Irigoien, Jesus Mari Iruretagoiena *Izeta III*, Mikel Lopetegi, Joseba Ostolaza, Urtzi Telleria *Telleria II* eta Iban Ugartemendia, aurrez aurre.

Eta hauxe, egin beharreko lana: 10 arroakoa (125 kg), 9 arroako kubikoa (112,5 kg), 8 arroako bola (100 kilo). Hiru minutuko lana harri bakoitzarekin.

**Idi–dema**
Harri jasotzaileen lana amaitu ondoren hasiko da idi dema. Telleria eta Olasagasti arituko dira, nor baino nor.

## Donostiako triatloian

Larunbatean, Emakumearen VI. Triatloia jokatu zen Donostian. Hainbat usurbildar atera ziren.



**Emailez jaso genuen argazkian ageri dira hainbat usurbildar.**

## ETXEBIZITZA

### Salgai

Pisua salgai Munalurran. 3 gela, sukalde-jangela, komun bat, gas naturala. 619 212 860/ 685 228 194

Pisua salgai. 90 metro karratu. Ganbara, komuna, bainugela, 3 logela, egongela eta sukaldea. 156.000€ Tel. 699 680 265.

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea.Iñaki (665736896)

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, + 60metroko trasteroarekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket… ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

### Alokairuan

Pisu bat alokairuan erdigunean . 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, trastelekua eta garajea. Egoera onean. Tel. 627 379 973.

Alkartasuna Kooperatibak etxebizitza bat alokatzen du Barrenkalen. Egongela ederra, 3 logela, 2 bainugela, 2 terraza eta garaje itxia ditu. 943361114.

Pisu bat bilatzen dut alokairuan Usurbilen. Tel. 602 127 725.

Pisu bat alokairuan Atxegalden. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Oso eguzkitsua. 943 37 22 45.

Gela eta apartamentu bila nabil Usurbil, Orio eta Lasarte inguruan. 631 277 061

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Pisu berria 100 metro koadro. Egoera ezin hobea. Pertsona bat edo pertsona bat umearekin. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

Etxebizitza polit bat eskaintzen da erdigunean. Zuzenean nagusiarekin hitz egin. 605 752 667.

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 570€. 2 logela, 2 hilabeteko fiantza. 667438145

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 600€. 2 hilabeteko fiantza. txangu68@hotmail.com

"Logela bat alokagai. 250 euro+gastuak. Kale Nagusian. 606 642 161

Pisua alokairuan Santuenean. Berritua, 2 logela. Urtarriletik aurrera. Fidantza gehi 2 hilabete aurreratuak. 630€

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

## MOTORRA

### salmenta, garajeak

Garaje itxia salgai. 20 metro karratukoa. Kale Nagusia, 2-4-6an. 649895858.

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratukoa. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa. Telefono zenbakia: 667984083

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

## LANPOSTUAK

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Tel. 608 299 579.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketan… 604148284.

Lan bila nabil, pertsona helduak, umeak, etab… zaintzeko. Esperientzia, tabernan, sukalde laguntzaile, garbiketan… 622 487 879.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan… 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilarena ere. Lan prenbentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelak egunean. Tel. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. Tel. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo hospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziekin. Tel. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketan eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrak emateko prest: LHn ingelesa, frantsesa, euskara, gaztelera eta ingurumena. DBH eta Batxillergoan ingelesa, frantsesa, euskara, gaztelera eta filosofia arloak, baita ingelesez ematen diren gaiak ere. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin. 619511789 / 943 760418.

Erizain laguntzaile bat. Sukalde eta masajeko titulazioarekin. Pertsona helduak, gaixoak edo umeak zaintzeko. Esperientzia frogagarriarekin. 943 36 50 79.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsuak lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketak egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Usurbilgo neska euskalduna, tituluduna eta esperientziaduna, haurrei ingeleseko klase partikularrak eman edo etxerako-lanetan



**Zorionak Ibai!** Uztailaren 1ean, 4 urte egin dituzu. Oso ondo pasako zenuelakoan, muxu handi bat guraso eta Noraren partez.



**Zorionak Maddi!** Ekainaren 30ean 7 urte bete dituzu. Muxu potolo bat etxekoen partez!!



**Zorionak Aitzol eta Lur!** Jada 8 eta 3 urte! Ze haundiak! Zorionak Aitzol eta Lur eta muxutxoak, guk ematen ditugu-eta.



**Zorionak Oihan!** 4 urte beteko dituzu, uztailaren 5ean. Muxu handi bat aitatxo eta amatxoren partez.



**Zorionak Eneko!** Uztailaren 11n 7 urte beteko dittuk, muxu pillo bat etxekuen partez. Muuuuaaak.



**Zorionak Olatz!** Uztailaren 4an, 10 urte beteko dituzu. Gure Eguzki, Gure Izarra, Gure Olatz!!! Amatxo Maite eta denon partez.

laguntzeko prest. 670461180. E-maila: oli_ireth@hotmail.com

Klase partikularrak ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzear eta lan honetan esperientziaduna.(618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Klase partikularrak ematen ditut edozein irakasgaietan. Esperientziaduna. Ordutegi eta prezioak adosteko erabateko malgutasuna. 634417969(Amaia)

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonei erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrak emateko prest nago.Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldez. Irakaskuntza gradua bukatzear eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goiz zein arratsaldez. Irakaskuntzan diplomatua. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketan eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsu eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperiantziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2.mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrak emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskalduna, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

## Lan eskaintzak

Emakume autonomo bat behar da Usurbilgo elkarte bat garbitzeko. 943 36 27 24 (Hitzorduak astelehenetan 18:00-20:00)

## BESTELAKOAK

Poltsa bat utzi dut Errekatxiki pasealekuan. Norbaitek aurkitzen badu, Noaua!ko bulegora eraman.

Pultsera bat galdu nuen ikastola eta kiroldegi artean, zilar kolorekoa eta bi hartzatxorekin. Aurkitu duenari bueltatzea eskertuko nioke 607 168 352 zenbakira deituaz.

Urte eta erdiko ume batentzako, sendo samarra den kotxe silla bat behar dugu. 626 728 463

Kotxe sila bat erosiko litzake urte eta erdiko haur batentzat. Sendo, fuertea izan dadila. 626 728 463.

Mutil gazte bat prest dago, rotabatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40 (Aitor).

Oxelo markako patinete bat galdu dut. Beltza eta arrosa. Askatasuna plazan. Aurkitzen duenak Patrira eraman, edo deitu 943 507 230.

Zaldi-terapia egiteko, egokitutako lokal bat, landa eremu bat edo lur-sail bat alokatu nahiko genuke proiektu bat aurrera ateratzeko. Igor Aizpurua. Tel. 606 525 707.

Niki txuri manga luze bat galdu dugu Erreka Txiki inguruan. Katu baten marrazkia eta perlatxoak ditu. Aurkitu baduzu, deitu 943 37 04 03 telefono zenbakira. .

Gidari arduratsu bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. Tel. 696 264 197.

Josteko makinak salgai. Prezio onean. Tel. 943 36 32 01.

Belar fardoak salgai. 943 36 20 72.

6 hilabeteko Bulldog frantsesa galdu da, txuria orban beltzekin, Txokoalde inguruan. Norbaitek ikusiko balu deitu 637 93 20 58 (Silvia)

Iphone 5 telefono mugikorra galdu nuen Eguberrietan. Topatu baduzu, deitu 943 36 11 15 telefonora.

Valentziako mandarina ekologikoak salgai. 1€ kiloa. Bitartekaririk gabe. Tel. 637 929 093.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

## TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

# Telefono interesgarriak

| | | | |
|---|---|---|---|
| Udala | 943 371 951 | Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 | Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 | Taxia (Joxe Kruz) | 677 373 466 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 | Eusko Tren | 943 470 976 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 | LurraldeBus | 943 000 117 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 | Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 | Anbulategia | 943 362 013 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 | Oa botika | 943 376 076 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 | Iturralde botika | 943 363 395 |
| Haur Eskola | 943 374 061 | DYA | 943 464 622 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 | Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 | Emergentziak | 112 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 | Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| KZgunea | 943 023 684 | Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 | Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 | Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 | Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Etumeta AEK Euskaltegia | 607 609 379 | Banco Popular Español | 943 370 411 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 | BBVA | 943 377 155 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 | Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 | Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 | Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 | Telefonica | 1004 |
| NOAUA! Kultur Elkartea | 943 360 321 | Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak uztailak 03 - uztailak 13

| | | | |
|---|---|---|---|
| Osteguna | 03 | URBISTONDO | San Franzisko 1 Lasarte |
| Ostirala | 04 | RODRIGUEZ | K. Nagusia 42 Lasarte |
| Larunbata | 05 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte |
| Igandea | 06 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte |
| Astelehena | 07 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| Asteartea | 08 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etor. 6. Lasarte |
| Asteazkena | 09 | URBISTONDO | San Franzisko 1 Lasarte |
| Osteguna | 10 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte |
| Ostirala | 11 | ORUE | Jaizkibel 2. Lasarte |
| Larunbata | 12 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etor. 6. Lasarte |
| Igandea | 13 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etor. 6. Lasarte |

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegikalea 8
Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

# Agenda uztaila

## 4 ostirala

■ **Gazteen Eguna Santixabel jaietan.** Pintura lehiaketa, toka txapelketa, Gazte Eguneko trikipoteoa, Igel Jokoa Artzabalen, buruhandiak eta erraldoiak, herri afaria txosnetan, kontzertua frontoian... Egitaraua, 11. orrialdean.

## 5 larunbata

■ **Santixabel jaietan.** BTT irteera, kantujira, zikiro-jana, herri kirolak, bertso saioa, bertsio gaua... Egitaraua, 11. orrialdean.

## 6 igandea

■ **Santixabel jaietan.** Umeentzat jokoak Askatasuna plazan, zanpantzarrak, herriko dantzarien saioan, jubilatuen bazkaria, Bola Txapelketa, harri-jasotzaileak, idi-dema, maskota erretzea... Egitaraua, 11. orrialdean.

## Jaiei amaiera emateko, Anai Arrebak taldearen kontzertua Askatasuna plazan

Azken orduan aldaketa batzuk izan dira Santixabel jaietako egitarauan. Besteak beste, kontzertu berri bat iragarri da. Anai Arrebak taldearen zuzeneko ikusgarria.

Iñaki eta Marga Altolagirre anai-arrebak dira Pasai-Donibaneko talde honetako buruak, eta gainerako partaideen artean Jousilouli, Naiz Roxa eta Trigger Travis taldeetan aritutako musikariak daude, besteak beste. Dantzarako rock musika egiten du Anai Arrebak-ek, funk, techno eta punk ukituekin osatua.

**Uztailak 6 igandea**
23:30 Anai Arrebak taldekoen kontzertua Askatasuna plazan.




**23:30ean hasiko da kontzertua.**

### Larunbatean bertso saioa



Larunbatean, gaueko 22:30ean bertso-saioa frontoian: Andoni Egaña, Amets Arzallus, Miren Amuriza, Etxahun Lekue, Asier Azpiroz eta Unai Gaztelumendi. Gai-jartzailea: Unai Elizasu. Amaieran, Santixabeletako XXXVIII. Bertsopaper Lehiaketako sariak banatuko dira.

### Suziri umoretsua, Elexpe eta lagunen eskutik

Ez dugu etxafuegorik faltako egunotan. Baina igande eguerdikoa ezberdina izango da. Gerturatu bestela, uztailaren 6an, 12:30ean Munalurrako plazara, ia zer prestatu duen Mikel Elexpe eta bere lagunek. Suziri umoretsua iragarri dute Santixabeletako azken egunerako.

## Datozenak

### Mattinen erakusketa Artzabalen

“BIOtzez BIOntzat. Bihotzetik biotzera” izena du, Santixabeletatik aurrera, uztaila amaitu arte Artzabalen ikusgai egongo den hurrengo erakusketak; Iñaki Martiarena “Mattin” artistak urmargo eta tenperaz sorturiko bilduma.

### Erakusketa Sutegin, Zero Zabor taldearen eskutik

“Hondakinek ez dutelako zertan zabor izan” erakusketa aurkituko duzue Sutegin, uztailaren 10etik 16ra, biak barne. Antolatzailea: Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkartea. Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

### Ostegunero pintxo-poteoa



Ostegun arratsaldea izan, Kaxkoko taberna batera sartu eta pintxo-poteoa iragartzen duen kartela ikusten baduzue, ordu eta leku egokian zaudete, edaritegiotako sukaldeetan prestaturiko zizka-mizka gozoak, edariarekin batera, 2 eurotan dastatzeko. Ostegun arratsaldero, eta afalaurretik, pintxo-poteoan murgiltzeko aukera dago Usurbilen.











NOAOA BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA
ERRESERBAK ETA INFORMAZIOA
943 373 613
info@noaoabidaiak.com
eskeintza gehiago
www.noaoabidaiak.com
Hipodromo Etorbidea Nº10
20160 Lasarte Oria Gipuzkoa


URPI Leihoak
IREKIERA BERRIA!
943 50 80 95 · 688 81 93 33
urpileihoak@gmail.com • Nagusia, 10 Trasera • 20170 Usurbil (GIPUZKOA)


Lehenengo 6 erosleentzako, garaje bikoitza banakako prezioan!
ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA
188.000 € tik
12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi
• Etxebizitza argitsuak.
• Terraza handiak.
• Loradegidun behe solairuak.
• Primerako kalitateak.
• Diseinuzko materialak.
USURBILEN
VIVIENDAS LANIN S.L.
Lazkano Pasealekua, 1º Behea
20009 Donostia
E.:contacto@viviendaslanin.com
943 46 88 60
www.viviendaslanin.com




## "A" gizartea lortzeko

## **eskatu beti faktura**

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

ZATOZ EKONOMIA GARDENERA

www.ekonomiagardena.net

Gipuzkoa BERRIA